

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 1/2024

ERABAKIA, (...)K (...)AREN (...)AREN JOKABIDEA DELA-ETA AURKEZTU DUEN KONTSULTARI BURUZKOA.

1.- (...)k Etika Publikorako Batzordeari postaz jakinarazi dio ezen, bere ustez, (...)aren (...)k Etika Kodea urratuz jokatu duela.

2.- Etika Publikorako Batzordeari bidalitako idazkiaren arabera, (...)k (...)ren higiezinaren eta lursailen mugakide den higiezin bat eskuratu zuen, eta orduan hasi ziren jokabide desegokiak: mehatxuak eta presioak familiako kideei, kontsulta-egileak dioenez haien lursailak lagatzea lortzeko.

3.- Idazkian adierazi du, presioak egiteaz gain, salaketa judizialak aurkeztu direla, baina salaketa horien xedea ez dela izan lursailen jabetza, baizik eta eztabaidetan zeharka gertatu diren bestelako kontu batzuk, zeinak azkenean epaitegietan salatu baitira.

4.- Idazkiaren arabera, etengabeak dira (...)k (...) izateagatik duen botereari buruzko aipamenak.

5.- Idazkiaren amaieran, (...)k dio, bere ustez, gertakari horiek Etika eta Jokabide Kodearen aurkakoak direla –zehazki, 6. eta 15. apartatuen aurkakoak–, eta Etika Publikorako Batzordeari eskatzen dio har ditzala beharrezkoak diren neurriak, ez dadin urratu kargu publikodunen Etika Kodean ezarritakoa.

6.- Horiek horrela, Etika Publikorako Batzordeak, Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez.

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago egun. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan zuten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Bestalde, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da eginkizun publikoetan dihardutenen betebeharrak etikoari eta betebeharrak sozialari erantzutea; hain zuzen ere, babestu nahi direlako interes komuna kudeatzen dutenengan gizarteak jarritako konfiantza legitimoa eta, orobat, bizitza politikoan aritzen direnen jardunaren gardentasuna.

Lege horren II. kapituluak funtzio garrantzitsua du: kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren eredia zein den azaltzea edo ezagutaraztea; testu arauemailea ere bada, eta, beraz, karguak funtzio publikoan jarduten duenean zer betebeharrak dituen ezartzen du legearen indarrez.

Ildo horretan, Etika eta Jokabide Kodeak bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia, non arautzen baitira kargu publikodunen Jokabide Kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak.

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean jasotzen da.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredu-garritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du Etika Publikorako Batzordeak, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- Etika Publikorako Batzordera bidalitako idazkiaren bidez, (...)k salatu nahi du ezen, bere ustez, (...)aren (...)k Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina urratuz jokatu duela.

Aurretik esan dugun bezala, Etika Publikorako Batzordeari bidalitako idazkiaren arabera, (...)k (...)ren higiezinaren eta lursailen mugakide den higiezin bat eskuratu zuen, eta, harrezkero, familiako kideek mehatxuak eta presioak jasan dituzte, (...)ren iritziz haien lursailak lagatzea lortzeko.

(...)k jakinarazi digunez, presioak egiteaz gain, salaketa judizialak aurkeztu dira, baina salaketa horien xedea ez da izan lursailen jabetza, baizik eta eztabaidetan zeharka gertatu

diren bestelako kontu batzuk, zeinak azkenean epaitegietan salatu baitira. Horrez gainera, jakinarazi digu (...)k etengabe aipatzen duela zer-nolako boterea duen (...) izateagatik.

(...)ren ustez, (...)aren (...) Etika eta Jokabide Kodearen printzipioak urratzen ari da; zehazki, kodearen 6. eta 15. puntuak.

2.- (...)ren salaketa jaso ondoren, Etika Publikorako Batzordeak haren berri eman zion (...)ari, idazkian jasotako gertakari eta kontsiderazioei buruz egoki jotzen zituen adierazpenak eta alegazioak egin ahal izateko eta, hartara, Batzordeak kasua aztertzeke nahikoa aurrekari izateko.

3.- (...)k zera adierazi zuen Etika Publikorako Batzordeari bidalitako erantzunean:

Adierazi nahi dut erabat faltsuak direla nire aurka egin diren akusazio zehaztugabeak. Zehaztugabeak diot, faltsuak ez ezik, ez dutelako ezein gertakari zehazten.

(...) epaitegiaren arabera, idazkian jasotako salaketen xede diren gertakariak, zantzen arabera, (...) izan daitezke, etxe mugakidearen jabearen familiak (...) egin eta kalteak sortu baitizkio....

Eusko Jaurlaritzako Etika Batzordearen aurrean jarritako salaketa hau nire eta nire familiaren aurkako beste jarduketa bat baino ez da, kontuan harturik Ertzaintzan eta epaitegietan aurkeztutako salaketa bakar bat ere ez dudala nik abiarazi, eta horrek agerian uzten du salaketa honek ez duela inolako funtsik: batetik, leporatzen zaizkidan egintza, jarduketa eta jokabideak ez daudelako inondik inora zehaztuta, eta, bestetik, idazkian aipatutako salaketa bakar bat ere ez dudalako nik jarri.

4.- Ildo horretatik, gure irizpenerako aurkeztu diguten gaia aztertu baino lehen, aipatu behar da, aurrez beste erabaki batzuetan adierazi izan dugunez (ikus 1/2019 Erabakia, besteak beste), Etika Publikorako Batzordeak ez duela botere mugagaberik irizpena emateko etikaren esparruan eragin zuzena edo zeharkakoa duen giza bizitzaren edozein alderdiri buruz. Batzordeak esleitua duen egitekoa askoz ere xumeagoa eta eskuragarriagoa da, halako organo bati dagokion moduan. Egiteko hori, funtsean, zera da: EAEko sektore publikoko kargu publikodunen jokabidea Etika eta Jokabide Kodean ezarritako jokabide-arauetara egokitzen den jakiteko egiten diren kontsultak eta salaketak ebaztea. Ez da bere eginkizunetan sartzen batzordearen irizpenaren esku jarritako jokabideak absolutuki etikotzat jo daitezkeen ala ez erabakitzea, baizik eta jokabide

horiek Etika eta Jokabide Kodean ezarritako balioen, printzipioen eta jokabideen kontrakoak diren ala ez zehaztea.

5.- Aurkeztutako salaketaren arabera, (...)k higiezin mugakidea erosi ondoren, mehatxuak eta presioak hasi ziren, kontsulta-egileak bere lursailak lagatzea lortzeko. Salaketa judizialak jarrita daude, baina horien xedea ez da lursailen jabetza eskatzea, baizik eta eztabaidetan zeharka gertatu diren bestelako kontu batzuk salatzea; izan ere, eztabaida horiek hasi eta bultzatu dira epaitegietan salaketak jartzeko helburuarekin.

Lehenik eta behin adierazi behar dugu ezen lursailen titulartasunari buruzko eztabaida gai juridikoa dela bete-betean eta ordenamendu juridikoan dagoela zehaztuta, xehe-xehe, zer organoren edo, azken buruan, zer organo judizialen eskumena den halakoak ebatzea. Horrenbestez, batzorde honek ezin du organo horien lana eragotzi, ezta balioetsi ere.

Izatez, Etika Publikorako Batzordeak lursailen titulartasunarekin zerikusia duten gaiak baloratuko balitu, gehiegikeriaz jokatzeko arituko litzateke, ez baita haren eginkizuna titulartasuna norena den erabakitzea.

6.- Bestalde, arrazoibidearen abiapuntu gisa hartu behar dugu ezen EAEko sektore publikoko kargu publiko batera iristean arau etiko bereziki zorrotzak bete behar direla, baina horrek ez dakarrela kargu hori lortzen dutenak herritar gisa ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideez eta askatasunez gabetzea, ez eta eskubide eta askatasun horiei kalte egitea ere. Dagokigun kasuan, printzipio hori aplikatzeak esan nahi du salatua (...)ren (...) izendatu izanak ez diola eragozten herritar gisa dagozkion eskubideak baliatzea.

Gainera, salatailearen eta salatuaren idazkietan adierazitakoaren arabera, lursailen titulartasunarekin zerikusirik ez duten beste kontu batzuk ari dira bideratzen epaitegietan; hortaz, planteatu diren gaiak horietaz arduratzen ari diren epaitegiek argitu behar dituzte, eta batzorde honek ezin du inolako baloraziorik egin horri buruz.

Berrito adierazi behar dugu Etika Publikorako Batzordeak ez duela ez eskumenik, ez baliabiderik, salaketan azaldu diren gaiei buruz ikerketa bat abiarazteko.

7.- Kexa-idazkia agiri labur bat da, dokumentu-euskarririk ez duena, eta han planteatzen da balitekeela (...) Etika eta Jokabide Kodean ezarritako printzipioak urratzen aritzea.

Zehazki, salaketa-idazkian zera dago jasota: “etengabeak dira (...)k (...) izateagatik duen botereari buruzko aipamenak –dirudienez, botere hori dutela uste dute–, helburua baita haren asmoen aurrean amore eman dezagun lortzea”.

Horren harira, Etika eta Jokabide Kodearen 6. eta 15. artikulua aipatzen ditu, non zera xedatzen baita EAEko kargu publikodunei buruz:

- Ez dute jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eramanez susmorik sor dezakeen ezer.
- Inoiz ez dituzte erabiliko ez erakundearen postua, ez karguaren ondoriozko pribilegioak beren buruarentzat abantailak lortzeko edo edozein pertsona edo erakunderentzat abantailak edo desabantailak lortzeko (zuzenean edo zeharka), non eta indarreko araudi-esparruan babestuta ez dagoen hori.
- Kargu publikodunek ez dute inolaz ere jokatu behar ordezkatzen duten edo zerbitzatzen duten erakundearen irudia kaltetzea ekar dezaketen jokabide edo jarreraren arabera, ez ekintza publikoetan, ez pribatuetan.
- Zuzendaritza-funtzioak dituzten kargu publikodunek jardunbide eredugarria izan behar dute jarduera pertsonaletan.

8.- Egiak, kargu publiko bat baliatzen bada norbait presionatzeko, printzipio hauek urratzen dira, edo, bederen, urra daitezke, kasu bakoitzeko inguruabarren arabera: inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak (Etika eta Jokabide Kodearen 5.2.4 apartatua), zintzotasunaren eta interes subjektiborik ezaren printzipioak (Etika eta Jokabide Kodearen 5.2.7 apartatua), eta, segur aski, bakoitzak bere erakundeetan eta antolakundeetan duen zeregin edo funtzioarekiko errespetuaren printzipioa ere bai (Etika eta Jokabide Kodearen 5.2.8 apartatua).

Hala ere, dagokigun kasuan, salatzaileak aurkeztu duen dokumentaziotik ez da ondorioztatzen salatua kargu publikoaz baliatzen saiatu denik onuraren bat lortzeko; gainera, salatzaileak ez du xehetasunik eman bere ustez kodea urratzea eragin duten jarrera eta jokabideei buruz, eta, orobat, ez du azaldu jokabide horiek nola urratzen duten kodea.

9.- Noski, ezin dugu jakin salatuaren kargu publikoari buruzko aipamenen bat egin den ahoz, eta ez dugu ikusten arrazoirik hori hala izan dela pentsatzeko eta, beraz, salatuak zilegitasun etikoaren marra gainditu duela esateko.

Bestalde, ezin dugu alde batera utzi (...)k betetzen duen karguak sona publikoa duela; izan ere, haren izendapena EHAAn argitaratua dago, dokumentu ugari sinatu behar izaten ditu, eta agerraldi publiko askotan egoten da. Hau da, gauza jakina da zer kargu betetzen duen, eta hori ez du zertan espresuki aipatu edo gogorarazi norbaitekin hitz egiten duen bakoitzean, bistakoa eta agerikoa baita zer erantzukizun publiko duen. Horregatik, hain zuzen, ez du aldiro-aldiro karguaren berri eman beharrik, ez baita ezkutatu edo disimulatu daitekeen zerbait. Kargu publikoduna izateak, ordea, ez du gabetzen herritar gisa dagokiona defendatzeko eskubideaz eta egoki jotzen dituen akzio judizialak egikaritzeaz. Edonola ere, kontuan hartu beharra dago, (...)k esan duenez, epaitegietan izapidetzen ari diren salaketak ez dituela berak aurkeztu.

Salatua Eusko Jaurlaritzako kargu publiko baten titularra denez, litekeena da (...)k horren berri izatea (...)k berariaz aipatu beharrik izan gabe ere, eta horrek eragitea solaskideari salaketa-idazkian aipatutako urduritasun-sentsazio subjektiboa eta beldurra. Lehen ere arrazoitu dugunez, aztertutako dokumentaziotik ezin da ondorioztatu salatuak datu hori nabarmendu zuenik, bistakoa eta agerikoa den horretatik harago.

Hala ere, aipatzen diren gertakariei dagokienez, ez da identifikatzen kargu publikodunak zer jokabide, jarrera edo portaera zehatz izan duen, esateko Etika eta Jokabide Kodearen printzipio eta balioetako bat urratu duela.


Adierazi denez, salaketa-idazkian judizializatuta dauden gaiak aipatzen dira, eta horiek ebazteko ardura organo judizialena da, zeinek erabateko independentziaz jarduten baitute. Ezinezkoa da (...)k haien erabakietan eraginik izatea, kargu publiko bat betetzeagatik. Kasu hau ez da Etika eta Jokabide Kodearen ustezko urraketa-kasu bat; aitzitik, salatutako gertakariak organo judizialek bideratu eta ebatzi behar dituzte.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Etika Publikorako Batzordeak ez du aurkitu (...)ren jokabidean zantzurik pentsarazten duenik Etika eta Jokabide Kodearen balio, printzipio eta arauak urratu dituela.

Bigarrena.- Kargu publiko bat baliatzen baldin bada interesdunari onura pertsonal edo familiar bat ekarriko dioten erabakiak har ditzaten hirugarrenek, printzipio hauek urratzen dira, edo, bederen, urra daitezke, kasu bakoitzeko inguruabarren arabera: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, zintzotasuna eta interes subjektiborik eza. Nahiz eta hori horrela den, kasu honetan ezin dugu ondorioztatu halako jokabide bat gertatu denik, zeren eta salatuak herritar gisa dagokion eskubide bat egikaritu baitu modu legitimo eta bidezkoan. Gainera, salatzaileak ez duenez frogarik aurkeztu, Etika Publikorako Batzordeak ezin du gaiari buruzko irizpenik eman.



Olatz Garamendi Landa
Etika Publikorako Batzordeko burua
Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 10a